



ZIKLOALPINISMOA BOLIVIAN

Askok galde tu izan digute honako hau: "Zergatik urte sabat ilkoa?" Hainbat irakurlek bezala, geuk ere askotan amestu dugu nahi adina denbora izatea mundua eta guretzako interesgarriak diren mendi, pareta eta herrialdeak ezagutzeko.



TESTU ETA ARGAZKIAK



Irigo Unzué
(1994, Zumarraga)

Txiki txiki zen baita trekking ogin izan ditu pirinietan. Eskalatu, mendiak ezagutu eta snowboardaz gozatzeko aitak larekin hainbat bidaiak ogin ditu munduan zehar: Zeilanda Berria, Nepal, Asia, EEBB, eta abar.

TESTU ETA ARGAZKIAK



Kattolin de Pedro
(1995, Gortzi)

Eska, eskalada edo dantza bertikala, bati aurkitzen di tarte bat oso inguru mendietara hurbiltzeko. Baina aurretik, nahiz adina denbora ez zuten ez bantetan gustatzen zelona ogitoko, pausatu eta "alforjak hartu" ditu, zenbait mendidorsu bitzeko asmoz.

Condorinako oinarriko kanpamenturako aproximazioa. Pico Austria eta Condorin atzetan, ezkeretik eskuin aldera

Denborak oztopo izateari uzten dihonean, bidaiatzeko eta herrialdeak ezagutzeko aukera asko zabaltzen da eta bizikleta zale amorratuak ez garen arren, horrek bidaiari ermita egokia emango zioala pentsatu genuen.

Abenturari mila irribarren herrialdean eman genion hasiera. Alforjetan eskalada materiala garraiatuz, Thailandia, Laos, Vietnam eta Kanbodia zeharkatu genituen bi gurpilean gainean, eta, horretaz gain, kareharrizko dorre berde altuetako pareteetan eskalatu genuen.

Lau hilabetez Asian bidaiatu ostean, mundua pixka bat hobeto ulertzen lagunduko zigun ikuspegi bila, Hego Ameri-

kara joatea erabaki genuen, bide batez, Asian pilatu genuen mendi gosea asetzeko. Han, eskalada materialaren ordez, mendiko botak, pioleta eta kranpoiak erabili genituen, eta kareharrizko pareta, tenplu budista eta temperatura goxoak atzean utzirik, Andeetako tontor elurtu, inken tenplu eta inguru haietako klima gogorra izan genituen aurrez aurre.

Datozen lehorretan, ezagutu genituen paisaia kontrasteak, eta guretzat arrotzak diren goi-mendietako flora eta fauna basatiekin bizi izan genituen ibilbide bakartietako pasadizo batzuk partekatzea da asmoa. Marraztutako bidea Boliviako eta Txileko hiru parke nazional zeharkatzen dituen pista isila da, Uyuni eta Coipasako gatzagetako lautadetan hasi eta Cordillera Realeko goi kanpalekuak batzen dituen pista gorabeheratsu eta elurtuetatik zehar. Tartean bidean aurkituriko zenbait gailur igo genituen, alforjetan generamatzen mendi material eta bota pisutsuak astintzeko asmoz.

Uyuniin zaudenean, badirudi zoruak hotzik ematen ez duen glaziar amaigabe batean zaudela, eta ez dirudi kasualitatea Uyuni hitzaren esanahia "kontzentrazio toki" izatea

Lehenengo egunak gogotsu hasi genituen Uyuniako "Casa ciclistan". Etxe modu haiek jendearen borondateari esker mantentzen eta funtzionatzen duten ostatu xumeak dira. Bertan, pilak kargatu eta beste bizikleta-bidaiari batzuekin bideari buruzko zenbait gomendio partekatu ostean, 11.000 km karratu dituen ozeano zurirantz jo genuen.

Uyuniin zaudenean, badirudi zoruak hotzik ematen ez duen glaziar amaigabe batean zaudela, non *mindfulness*-a praktikatzeko toki perfektua aurki baitaitekeen: bidean, bi-

Egusemia Huayna Potosin




BOLIVIA

zikletak, gatza eta gu baino besterik ez geunden. Ez dirudi beraz kasualitatea Uyuni hitzaren esanahia "kontzentrazio toki" izatea.

Bidean bi elementu geneuzkan erreferentziatzat: Tunupa sumendia eta Incahuasi iria. Azken hau, kaktusez inguratutako oasi moduko bat da, non bertan lo egin, deskantsatu eta urez horni gaitzkean. Zuzenena bertaraino 70 km bidaiatu ondoren, energia berreskuratu eta norabidea 90 gradu aldatuz, Tunupa antz bideratu ginen. Tunuparean, geure kanpalekuak ziren. Eguzkiak islatzen zuen azken oztopoa, eta paisaian atzeman zitezkeen kolore aldaiketaz gozatu ostean, iluntasuna iristearekin batera, gauak gatzagia eta Esne Bidea parez pare eskaini zizkigun.

Biharamunean, Tunupa sumendiaren magalean dagoen Coqueza herriko harresko pista bueltatu ginen, Coipasarako bidea hartuz. Tarte horretan, gatzagiaren beste ikuspegi bat izan genuen: ozeano zuria erretetik. Gatz desertuak berde koloreari bide ematen dion heinean, flamenko, llama eta alpakek bizia ematen diote paisaia. Bide isolatu haiekin zehar ez dago ostaturik, baina, hamabi familiak osaturiko

Yareta (*Azorella compacta*). Bolivia, Peru, Chile eta Argentinan bakarrik hazten den landare 3200 eta 4500 m artean. Urtero milimetro bat hazten den landare milenariora



herri bako bako plazara gerturatzean, bertako ume guztien irakasleak bere ikasgelan lo egitea eskaini zigun, eta bere ikasle zen Zulma neskatilak, free tour bat eskaini zigun, herriko txutxumutxuak kontatzen zizkigun bitartean.

Ondoren, Coipasara abiatu ginen, Uyuni aurkitu ez genuen ur ispiuaren bila, hark hezeagoa behar zuelako. Coipasarako, gatzagietako bideei amaiera eman eta Sajama jomuga zuten "Ruta de las Vicuñas" bideari ekin genion. Aukeraturiko



Polloqueroko terma naturalak

bidean, poliki-poliki, kilometroak aurrera egin ahala, sumendiz inguraturiko basamortu batetara gerturatu ginen, Txile eta Boliviako mugan zehar, 4000 metrotik gora zihoszen harreazko bideetatik. Lehenengo egunetik, parke naturalerako paisaia basatiek egin ziguten ongietorria, Isluga sumendi aktiboaren keak iparra adierazten zigularik. Gu ginen han bisitari bakarrak, llama, alpaka, bikuina, ostruka eta bizkabaxa (erbi eta ur txinba antza duen karaskaria) saltokarien artean.

Ingurua lehorra bazen ere, sumendi altuetatik urrutako elurrek bidea umeltzen zuten, arroila berdeak sortuz eta animalia basati haien bizitokiari kutsu zoragarria emanez. Isluga eta Guallantiri lehortzeko arri zurik egon ez amen, nolabait, bizirik sentitzen ginen, ur azpitik isurtzen ziren azulre usaineko putzu beroek sortutako termetan. Caraguano, Chiriguaya eta Polloqueroko uretan izan genuen gorputzak berotzeko aukera. Denak polit-politik baziren ere, aipatzekoa



Condoririko oinarrikokanpalekua eta Huayna Potosiko oinarrikokanpalekua lotzen dituen bidai. Maria Uloko (5100) metroira dagoen lepoa bizikletan zeharkatzen

da azkeneko terma hura. Erabat naturala da eta Surire gatzagian dago kokaturik, non gorputza uretan bero eta burua kanpoan hotz izanik, flamenko eta bikuinen ondoan bainatu baizaitzkeen, 4300 metroko altueran.

Hau al da alpinismoa? galderaren erantzuna norberak hausnar beza

Inguru bakarti hartan, bost egunetarako janaria eta kanpin denda gure ezinbesteko gauzen artean egotea eskertu genuen; izan ere, ez genuen denda bakar bat ere aurkitu bide osoan zehar. Ostaturik ezean, kanpin denda jartzen genuen, baina Guallatiri herritik, CONAFeko basozain jator batek ostatu eman zigun, eta ur beroa eta ohe eroso batez gain, bertako flora eta faunaren ezagutza partekatu zuen gurekin. Berak esanda, Salar de Surire ustiatzen ari zen meatze enpresa flamenkoren bizilekua suntsitzen ari dela jakin genuen.

Bide haren amaieran, kontrabandistekin soilik partekatzen genuen goi mendate (4730 m) batetik, berriro ere Bolivia-

ra iragan gin en. Azken mendate eta jaitsiera hark, amestu izan genituen mendiek eskaintzen zuten paisaia oparitu zigun. Bertatik, Acotango, Pomerape, Parinacota eta piramide handi baten gisa azaleratuz, Boliviako gailurra den Sajama (6542 m) ikusi ahal izan genuen. Paisaia ikusgarri harekin eman zigun ongietorria Sajama mendiarren magalean dagoen eta izen berbera duen herriak. Azken hura oinarrikokanpaleku gisa harturik, zenbait espedizio edo irteera egin daitezke bertatik, inguruko mendi eta sumendietara. Aklimatazio atsegina egiteko toki aproposa da, 4400 metrotako altueran jarduera asko egin baitaitezke: terma natural ugari daude, lakuak...

Guk, aklimatazioa biribiltzeko, herritik oinez atera eta Sajama tontorraren edertasuna gertuago begiesteko aukera ematen duen 5053 metroko Huisailla tontorra igo genuen, harritxo txiki eta solteztasunak bidetik. Igoera horrek, hurrengo eguneko eronkari aurre egiteko segurtasun apur bat eman zigun, horrela Acotangoak daukan 6052 metroko igotzeko aukera izango genituela sinisteko.

Heldu zen eguna: gure lehenengo 6000 metroko mendia egitera gindoazen. Ez dugu ukatuko urduri geundenik. Gure

gorputzak ez zuen inoiz horren haize finik arnastu. Pentsamendu hori buruan bueltaka genuela, goizeko hiruretan bikote aleman batekin taxian sartu ginen bidearen hasierara iristeko. Taxia meatze errepidearen amaierara heltzerako, gure altuera errekorra egin genuen: 5300 metro! Lehenengo pausuak izan ziren gogorrenak, kotxeak bi ordutan 900 metroko altuera irabazi baitzuen, gure gorputzei altuerara ohitzeko denborarik eman gabe. Hau al da alpinismoa? galderaren erantzuna norberak hausnartzeko beza. Gure iritziz, 6000 metroko altueran zer sentitzen den probatzeko mendi oso aproposa izan zela iruditu zitzaigun.

Behin geure gorputza altuerara ohitu eta eritmo lasai baina konstante bat hartu genuenean, igoera erraz eta elkar lotu gabe (soka gabe) egin genuen. Ingu ru haieran jotzen zuen haize bortitza izan zen aurre egin beharreko oztopo bakarra. Tontor hura egun bakarrean egin ohi da, eta gure kasuan ere, eguerdirako bueltan geunden Sajaman. Bailara haieran, Pomerape, Parinacota edo Sajama bera igotzeko asmoa genuen, baina, eguraldiaren iragarpenak egun askotarako haizea zekarren. Sumendietako abenturak horrela amaitu genituen, zenbait etxerako lan utzita beste bidaia baterako. Haizearen mehatxutik ihesi, Cordillera Realerantz abiatu ginen, La Pazeko "Casa ciclistan" geldialdia eginda.

Zikloalpinismoari berriro ekin aurretik, 3.000.000 biztanleko La Pazetik ihesi, autobus bat hartu genuen Chuñavi herriaraino. Leku lasai hartatik aurrera aproximazioa bizikiletaz egin genuen, gurpilik lurrezko bideetatik gidatuz, gure helburu ziren Condoriri bailarako mendi elurtuetarantz. Autobusak Chuñavi herrian utzi gintuen, eta handik oinarritzeko kanpalekuaraino dauden 34 kilometroen artean 830 metroko desnível positiboa dago. Bizikiletaz egin daiteke, erreka eta aldapa gogor batzuk soilik baitira bizikiletatik jaitsiaraziz gintuzten oztopo bakarrik; haren amaiera single track batekin egin ohi da, Chiar Khota lakua inguratuz. Guk geuk, ordea, bidea bi zatitan egin genuen, Tuní herrian geldialdia eginez, Andresen ostatuan.

Jaitsiera etapa polit bat amaitzeko mendien magalean dagoen La Pazera gerturatu ginen eta mendiek duten tamaina erraldoiaz jabetu ginen

Condoriniko oinarritzeko kanpalekua ederra da oso. Mendiz inguratutako lakuaren ertzean bi aterpe daude, inguruak eskaintzen dituen hainbat igoeretarako luxu gabeko toki estali eta magikoa eskainiz. Lo egiteko lurrean kokatutako koltxoiz bateriko puzzlea dago, eta gasezko doako sukalde bat ere badago, oinarritzeko beharrak asetzeko. Bertan, Pico Austria (duen erraztasu nagatik ezaguna), Cabeza del Cóndor eta Pequeño Alpamayo dira ezagunenak, baina zailtasun handiagoako beste tontor batzuk ere badaude. Gure lehenengo tontorra Pequeño Alpamayo (5410 m) izan zen,

bide normaletik, eta PD+ zailtasuna du. Goizeko 03:15ean, frontalaren argipean, ordubetez ibili ginen glaziarren hasiera arte. Bertan, kranpoiak jantzita eta sokaz loturik, beste batzuen urratsak jarraitu genituen, gauko hotza eskuetan eta oinetan nabaritzen genuelarik. Glaziarrean zehar Tarija tontorreraino (5320 m) heldu ginen. Jaitsiera kanal harritsu batetatik egin genuen, eta ostean, Pequeño Alpamayoko tontorra atzean utzi genuen, ertzari ekiteko. Ertz berezia dauka Pequeño Alpamayok: bi muiño ditu en 60 graduko ertz estetikoa. Energiak ekin genion, bere edertasunak erakarrita. Elurraren egoera onari esker, ez genuen iltze edo seguru-rik jarri behar izan igoeran zehar. Bigarren muiñoan aldiz, arroka dagoen tartean, kontu handiagoarekin ibili behar izan genuen, kranpoiak arroka solteen artean iristatu ez zitezten. Behin hori zeharkaturik, tontorraz gozatu genuen, igoera biribileta dibertigarriari amaiera gozoa emateko.

Egun bat deskantsatu ostean, zailtasun apur bat handiagoa duen Cabeza del Cóndor (5648 m, AD+) igotzeko asmoa genuen, bide normaletik, Mario izena zuen bertako gida batekin. Begiz jota geneukan mendi hura bailarako erregina zela iruditu zitzaigun, duen piramide itxurako tontorragatik. Urn titik kondor itxura antzeman dakioke, eta iparraldean eta hegoaldean dituen mendiek, Ala Derecha (5480 m) eta Ala Izquierda (5560 m), hegazti dotore horren itxura ematen baitiote. Zoritxarrez, goizeko ordu batean, itzartu ginenean, lüigo ondoezik zegoen, beraz, Mario eta biok ekin genion morrenaren bide malakartuari. Mendiko bota gogorak ez ziren bide irristakorrean gora egiteko aproposenak, eta mugimendua errazten duten bota arinago batzuk eramatea faltan bota izan nuen morrena luzean zehar. Lepora heldu baino ordubete lehenago, pozik jantzi genituen kranpoiak eta sokaz lotu ginen bide atseginago bat hasteko: glaziarra. Lepora heldu gineneko egunsentia zen: Eguzkiak eskaini zigun oparia minutu batzuez gozatu, eta egun argiz mendiaren zati

Sajama herria, bertatik Sajama gertu kus dalatoka





Acatangorako bidea. Atzean ezkeretik eskuera Parinacota (6348 m), Pomorape (6282 m) eta Sajama (6542 m)

teknikoenari ekiteko momentua heldu zen; kanala eta ertzari ekiteko momentua zen. Harri, izotz eta elur soltez osaturiko kanalean, nahiz eta oso luzea ez izan, amaierako parabolaren aurretik, torloju bat jartzea komeni da. Iraganbide edo *Couloir*aren ondoren, ertz zorrotza dago, eta tontorreraino bertatik joan behar da bide estu eta aereo batetik. Ertzaren erdian, ordea, mistoan egin beharreko arroka bloke bat igo behar da, eta kontu apur batekin ibili beharra dago, jaitsieran batez ere. Tontorrera heldu eta walki-talkiez ustez aterpetxean zegoen itzigorekin komunikatu ginen, erdiekitakoaren berri emateko. Baina, Itzigok Pico Austriatik (5320 m) erantzun zuen! Energia berreskuratu, oinetakoak jantzi eta bertara igo zen, gure igotza

apur bat gertuagotik ikusteko asmoz. Kranpoirik gabe eta soka gabe egin daitekeen gailurra denez, aukera bikaina izan zen konpainia gabe igotzeko.

Cabeza del Condoreko jaitsierari dagokionez, 60 metroko bi soka izatea komeni da, kanalaren hasieran dagoen parabolatik rappel bakarrean jaisteko. Morrenatik iristaka jaitsi eta sorpresa ederra hartu genuen, Itzigok ogitarteko batekin gure zain zegoela ikustean. Gainera, tontor eder horren azken metroak elkarrekin egiteko aukera izan genuen. Eguneko jarduera, ordea, ez zen orduan amaitu. Alforjak jaso eta bizikletaz parez pare genuen Tuni herriraino gerturatu ginen, eta gure hurrengo erronka izango zen Huayna tontorraren ikuspegiaz gozatzeko parada izan genuen.



orain arte egindako bizikleta zatirik politenetakoa denik. Bizikleta eta alforjak behe kanpalekuan utzi (5130 m) eta hurrengo egunean goi kanpalekura bidea hartu genuen, hiru orduko ibilaldia zegoina eginez. Mendiaren magalean zegoen aterpetik (5200 m) ilunabarraren argipean La Paz, inguruko mendiak eta hurrengo eguneko glaziarra ikusi genituen. Goi-kanpalekuan zenbait aterpe daude, eta mendioso ibilia izan arren, gaua pasatzeko aukera edo tokia egon ohi da.

Huayna bisitari askoren bisitaleku izaten da; izan ere, La Pazetik 35 kilometrotara baino ez dago. Gainera, 6088 metroko mendi horrek, bide normalerik eginda, Pala Chica izeneko 50°ko aldapez gain, ez dauka aparteko zailtasun teknikorik. Esaterako, bi pioleteren igo beharreko aldatutxo bat eskumetik joanda ekidin daiteke. Askoren helmuga izan ohi den tortomera heltzeko ez genuen ia frontalen beharrik izan, ilargi betearen argiak bidea, glaziarra eta dituen arrakalak argiztatzen baitzituen. Pixkat umutiago, berriz, La Paz argiztatutik ikus genezakeen. Propina gisa, Huayna (6088 m) igo genuen egun berean, oinarritzko kanpalekura jaitsi, bizikleta hartu eta La Pazera ino jaitsi ginen, hiriko erosotasunak aprobeitu eta ospatzeko. Jaitsiera etapa polit bat amaitzeko aukera ezin hobea izan zen, mendien magalean dagoen La Pazera gerturatu ahal, mendiek duten tamaina erraldoiaz jabetuz.

Horrela amaitu genituen Boliviako abenturak, zirkoslipinismoak ematen dituen mendia eta herrialdea ezagutzeko aukerei zukua aterata. Hurrengo kapitulu batean ere bizikleta izango da gure erraminta eta helburua. Peru eta bere mendikate zuri ikaragarria: Cordillera Blanca.

Huayna Potosko goi kanpalekua. Atzean, eskuin aldean Illimani ikus daiteke



Huayna behe kanpalekura kotxez gerturatuz, La Pazera ino hurbildu beharra dago. Badago, ordea, Huayna ren magala inguratuz, meatze bide abandonatu batzuetatik zehar bizikletaz egin daitezkeen beste bide bat ere. Bi kanpalekua lotzen dituen 35 kilometroak ederra bezain gogorak dira. Guztira ia 1000 metroko desnubela gainditu beharra dago, eta 5100 metroko altueran dagoen Maria Uoko lepoa ere igaro beharra dago. Bidearen baldintzak ez ziren oso onak, eta bizikletatik samitan jaitsi behar izan ginen aurrera egiteko. Hori gutxi balez, bidearen zatirik altuena elur etan igaro genuen. Bizikletaz egindako tarte hura, laburra izanik, erraz egingo genuela uste bagenuen ere, egun guztia behar izan genuen Huayna Potosiko behe kanpalekura iristeko, baina, ezin dezakegu ukatu